



LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2017-06-26

BILERA ZENBAKIA: 41

ORDUA ETA LEKUA: 19:00tan Itsasondoko Udalean

PARTEHARTZAILEAK: Bi neska eta mutil bat

EGINDAKO LANAREN LABURPENA

LANDUTAKO GAI ORDENA

- 1. AZKENEKO AKTAREN ONARPENA**
- 2. ETXEKO LANAK**
- 3. KIROLA SUSTATZEKO DIRU LAGUNTZEN ESKAERA. GIMNASIOAREN ANTOLAKETA.**
- 4. HARRERA EGUNAREN BALORAZIOA**
- 5. EKAINAK 17KO ERREFUXIATU EGUNAREN BALORAZIO AZKARRA.**

1. AZKENEKO AKTAREN ONARPENA

Ez dago ekarpenik eta onartuta geratzen da.

2. ETXEKO LANAK

- 1- KIROLA SUSTATZEKO DIRU LAGUNTZEN ESKAERA. GIMNASIOAREN ANTOLAKETA

- a. Tipi tapa dinamizazioa eta helduentzat gimnasia dinamizatzeko diru laguntza eskatu da. Idoia arduratuko da lan hau aurrera eramateaz. Aurrekontua 7000-8000 euro ingurukoa izango da, eta, %45 - 50 inguru diruz lagundua izango da.
- b. Kirol ekintzen gela ekipatzeko intentzioa dago. Makineria jartzeko diru laguntza eskatzeko epea agortu da, eta, aurten ezin izango da eskatu, herritarren lanketa bat egin, proposamen ezberdinak jaso eta datorren urtean egingo da makineriaren eskaria.



- c. Kirola sustatzeko muralak jarriko dira herrian zehar. Panelen eskaera egina dago iada. Muraletan jartzeko informazio posiblea honakoa izan daiteke.

Elikadura osasuntsua.

Soinketa ariketa ezberdinak.

Ariketa egitearen oonurak.

Gorputzeko muskuluak.

2. GOIEKI. GENERO INDARKERIAREN INGURUKO INFORMAZIOA.

Goiekik genero indarkerian inguruan eginiko txostena bidali da Gizarte Zerbitzuetara eta Ongizate zinegotziak ere jasoio du. Gizarte Zerbitzuetatik ez zen informea irekitzea lortzen eta zinegotziak berbidaliko dio.

Txostenean Itsasondoko bi kasu daude reflejaturik. Gizarte Zerbitzuetatik pasa da bat, baina bestea ez. Nolabait, Udaleko Gizarte Zerbitzeuk, genero indarkeri kasuetan eman ahal dituen zerbitzuak herritarrei erraztea planteatzen da.

3. ELIKAGAI BANAKETA. ALDAKETA.

- a. Elikagai banaketa mataderoa zegoen tokira lekualdatuko da. Iada martxan da lekuaren egokitzapena, auzo lanaren bidez lanen bat egin beharko bada ere. Barruko egokitzapena ere pendiente dago, takila batzuk jartzea aurreikusten da.
- b. Lekualdaketa ematen denerako, araudi bat egin beharra ikusten da, funtzionamendua errazteko eta Elenaren lana arintzeko. Elena eta Itrziarren artean arautegi proposamen bat osatuko da, gero lantaldean landu ahal izateko.

3. KIROLA SUSTATZEKO DIRU LAGUNTZEN ESKAERA. GIMNASIOAREN ANTOLAKETA.

Etxeko lanetan hitz egin da gaiari buruz. Aurrez aipatu dira beraz gai honi dagozkionak.



4. HARRERA EGUNA.

- Herriko eragile ezberdinetako ordezkariak gustora aritu ziren harrera eginez.
- Herritar bakarra agertu zen ekimenera. 4-5 gehiagok baiezkoa eman bazuten ere. Agertu zen herritarra oso gustora egon zen, eta herriko zerbitzuak ezagutzeaz gain, sarea osatzen laguntzeko balio izan zion.
- Gainontzeko 3-4ak agertu ez izanaren arrazoia ez dakigu. Gizarte Zerbitzuetatik dei bat egingo zaie, eta azalduko zaie, baiezkoa eman izanak inplikazio batzuk dituela.

5. ERREFUXIATU EGUNA.

- Ekainak 17an burutu zen errefuxiatu eguna oso positiboki baloratu da.
- Bertaratutako jendea: 150 herritar eta kanpokoak gerturatu ziren paella janera. Hau ere oso positiboki baloratzen da. (150, paella janera)
- Burututako ekintzak: Anitzak eta herritar guztientzako modukoak izan ziren (haur, gazte, heldu) Gerturatutako jendea gustora geratu zen ekintzekin. Bingoa luzatu zen eta ipuin kontalariak mikrofonoa behar zuen baino gainontzean dena oso ondo joan zen. Oso positiboki baloratzen da.
- Bertaratutako elkarteak. Errefuxiatuen alde lanean diharduten 5 elkarte erreferente gerturatu ziren, eta, hori ere era oso positiboan baloratzen da.
- Jasotako diru kopurua. 2700€ garbi atera ziren egunean. Hauek, gerturatutako elkarteetan artean banatuko dira horrela:
 - Payasos en Reveldía. 1000€
 - Itsas salbamendu humanitaria 400€
 - Pasaportes para Siria 400€
 - Zaporeak 400€
 - Ongi Etorri Errefuxiatuak, Gipuzkoa 400€
 - Horrez gain Javi Julio argazkilariari 100€ emango zaizkio. Muraletarako argazkiak luzatu dituen argazkilaria da bera.



6. BESTEAK. JAIETARAKO PREGOIA ETA BOKATA JANA.

Uztaileko lan talde bilera ez da egingo eta Bokata jana eta Jaietako pregoiaren inguruko lanketa egin da, lana aurreratuz.

- Pregoia. Ongizate lantaldeak egingo du. Zerbait originala egin nahi da, landutako gaiak errepresentatuko dituen. Pregoian herrialde ezberdinetan jaiotako pertsonen presentzia egotea nahi da, eta, kultur adierazle ezberdinak agertu nahi dira.
- Bokata jana. Aurrera eraman ahal izateko jendearen inplikazioa ezinbestekoa da. Pertsona batzuk baieztatu dute beraien prestutasuna aurtengo jaietarako.

Hurrengo Ongizate lantalde bilera irailaren 25ean da. (jaien ondoren) beraz iraila hasera inguruan bilera extra ofizial bat egingo da bokata jana, eta, pregoia lantzeko.

| ETXEKO- LANAK | NOIZKO? | ZEINEK? |
|------------------------------|------------|----------------|
| Elikagai Banaketaren araudia | Irailak 25 | ELENA - ITZIAR |
| | | |

HURRENGO BILERA

Hurrengo bilera, 2017ko Irailaren 25ean egingo dugu, astelehena arratsaldeko 7tan Udaletxean.

Gai ordena:

- Aurreko aktaren onarpena
- Etxeko lanen errepassoa
- Festen balorazioa
- Aurrekontuak lantzen hasi